


Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko irailaren 5a / 551. zenbakia

Hastera doa!

Bergarak liga hasiko du domekan Berion




PAULO ELKORO: **GOSE GREBA HASI DU/5** • ANTZERKIA: **ANTZERKIOLA IMAGINARIOA ZABALOTEGIN/12**

AZALA: MIREN ALMARAZ / JATORRIZKO ARGAZKIA: EDU MENDIBIL

GREMIOEN GIDA

zure etxearen osasun onerako



**AGIRRE
MARGOAK**

Ortuibar 1, 3-C
943 76 53 82
Tailerra:
Alkabieta 7

- Orotariko pintaketa lanak

ARISTEGI-TOLA



ITURGINTZA

Bolu 26
943 76 54 17

- Kalefakzioa
- Bainurako altzariak eta dekorazioa
- Konponketak

ARREGI AROZTEGIA



Urteaga 20
943 76 11 73
Erakusketa:
Bidekurutzeta 38
943 76 31 03

- Orotariko arotz lanak
- Sukaldeak
- PVC leihoak

J.M. IZAGIRRE

Igeltseritza

Loidi baserria,
Angiozar
943 76 56 86

- Teilatu, fatxada, sukalde eta bainugelen berrikuntza

BERGARA

Margoak

Amillaga 1, 1. pab.
162 p.k.
943 76 97 31
F 943 76 97 32
bergara.margoak@terra.es

- Orotariko pintaketa lanak
- K-21 agiria



GOYSMA

Urteaga 9
943 76 98 12

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa

UGARTE
ARROZTEGIA-ALTZARIAK

San Juan 1 A
943 76 54 91
F 943 76 08 04

- Orotariko arotz lanak
- Apainketa, soruak, leihoak, atekak



UR
kristaldegia

Martoko 1-3
943 76 54 68

- Ispiluak
- Beirateriak
- Biselatuak
- Plastikoak



Manufacturas
AFA-BI, S.L.

S. Lorenzo z/g
943 76 50 92
943 76 21 59
F 943 76 02 65

- PVC
- Aluminioa
- Veka sistema

ATREBENTZIA EZ PADA / Urtero irailian telebistan iragartzen dituduen bildumarik egiten dozu?



SARAI RUIZ
14 urte




FRANCISCO SANCHEZ
59 urte



ALICIA SALGADO
49 urte



ASIER SALVATIERRA
25 urte



IKER ETXABARRI
15 urte



ELI ALBERDI
20 urte

Ez dot sekula halakorik erosi. Ez jat gustatzen. Bueno, egixa esan, ez jat sekula atenziñorik jarri halako gauzei. Gaiñera, ondiokan gaztia naiz astero-astero erosten ibiltzeko.

Ez naiz holako gauzen aldekoa. Ez dot behin be erosi eta ez dot uste erosiko dotenik. Sekula ez dotset atenziñorik jarri halako gauzei. Gaiñera, pentsatzen jat garestixak izango diela.


Egixa esan, ez dot iñoiz egin. Etxian aurrekuan jardun giñuan horren gaiñian berbetan. Uda ostian halako asko iragartzen dittue telebistan. Nik, behintzat, ez dot iñoiz egin.

Ez dot sekula halako bildumarik egin. Ez jat gustatzen. Eskaintzen dituduen gauzak ez jat gustatzen, normalian. Gaiñera, ez daukat dirurik astero-astero erosten ibiltzeko.

Behin egin neban bilduma bat, motorrena; motorren gaiñeko lasterketena, sailkeapenekin. Motorrak asko gustatzen jatelako egin neban. Bestelakorik ez dot egin.

Ez dot sekula holako bildumarik egin. Behin be ez jat atenziñorik jarri hola-kuai. Igual iñoiz interesatzen jaten zeozer ikusten badot... Baiña nahiko ton-tokerixia pentsatzen jat.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK BIRIBILUNEA ETA EDUKIONTZIAK Fraisko zuriko biribiluneaz kezatzeko deitu du irakurle batek. Haren esanetan, batetik, ez da nabari biribilunerik dagoenik, zoruan margotuta dagoelako; bestetik, Fraisko zuritik Bideberri aldera joan eta biribilunean buelta eman nahi izanez gero, edukiontziek enbarazu egiten dute. Edukiontzia tokiz aldatzea gomendatzen du irakurleak. /M.B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK / 5

KIROLAK / 10

KULTURA / 12

Paulo Elkorogose greban

Espainiako agintariak Alemaniakoei eskatutako estradizioa salatzeko eta ez ezartzeko hasi du.

Igerilekua, bost egunez itxita

Agorrøingo igerilekua itxita izango da datorren astean garbiketara lanak egiteko.

'Oliver!' Iruñera eta Donostiara

Bergarako Orfeoak Iruñeko Balaarte aretoan eta Donostiako Kursaal-en egingo du Oliver musikala.

ASTEKO DATUA

42

GRADU IZAN GENITUEN ABUZTUAREN 4AN

Abuztuko egun beroena huraxe izan zen. Luis Mari Agirrek esan duenez, 1983 urtea ezkerro-temperaturari jarraipena egiten dionetik- ez dugu halako egun berorik izan.

BESTEKE SANA

“ Madriletik, PPrene gobernu, beste behin, Baimen arautegia aldatzeko ahaleginean dabil. Hori betikoen onurarako, garraiolari gutxiengo batendako, autonomoak ez direndako. Euren asmoa da aldaketak eman ziren hasierako puntu hartara eramatea berriz sektorea: enpresa handiak eta autonomo gutxi, gero eta gutxiago. Inork ez dezala zalantzarik izan; behar izanez gero, neurriak hartuko dira enpresei ahalbidetzeko garraiolariet libratzea. (...) Denbora latzak datoz: Administrazioak jarraituko du ohituta gauzkan akordioaren aldeko debeteekin. HIRU sindikatutik beharrezkoak diren laguntzak bilatuko ditugu, eta sektoreari laguntzeko beharrezko den estrategia egingo dugu. ESTEBAN MURUAMENDIRAZ / Sintragiko idazkaria 'Garraiolariok'/03-08

BERAIEKDIÑOZ / Edurne Azuara



Iraila maitea

Ongi etorri, iraila! Azkenean ere iritsi da zure txanda. Azken hilabete hau zu noiz iritsiko ikaraz egon naiz, bai, barkatu esatea, baina ez daukazu fama oso ona... Zure izena eta "lanera itzuli" bat datoz, eta zuk badakizu gizaki asko lan egin gabe biziko ginatekeela, ahal izanez gero, noski. Beraz, normala da duzun fama.

Baina ez larritu, zu iristeko ikaraz egon banaiz ere, orain hemen zaudela, puntu positibo asko lortzen ari zara nire aldetik. Urtarrilaren antzera, zuk ere pilak jartzen dizkidazu, eta gauza berri asko egiteko nahia sortarazten didazu. Esate baterako, kirol apur bat egiteko animuak ematen dizkidazu (azken bi aste hauetan amaren potaje guztiekin irabazita-koak ere horretara animatzen nau), gauza berriak ikasteko nuen grina aspaldikoa bazen ere, zure etorrerak azkenik ere amets hori egi bihurtuko

du...Eta oraindik aseta sentitzen ez banaiz beti daukat telebistan agertzen diren horrenbeste bilduma harrigarri egiteko aukera! Perfume bilduma, auto zahar bilduma, Mariquita Pérez bilduma, itsas-urkulu bilduma...

Guzti hau suposatzen dut errutinari lekuri ez uzteko erabiltzen duzun estrategia bat dela, ez? Ez zait ideia batere txarra iruditzen ez baitakizu ze gaizki pasatzen duten pertsona batzuek zure etorrerarekin! Urriak eta azaroak ere zure estrategia

ezagutuko dutelakoan nago, noski... Tira, asmoak behintzat onak dira (ea emaitzak ere horren onak diren!) eta horregatik eskerrak eman nahi dizkizut. Beno, horregatik bakarrik ez, eskerrak eman nahi dizkizut baita ere urtero hilabete honetan bergararroi bereziki uzten diguzun opariagatik, lanera itzuli beharra askoz atseginagoa eginez... San Martinak!

“Zure izena eta “lanera itzuli” bat datoz, eta zuk badakizu gizaki asko lan egin gabe biziko ginatekeela”

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Miren Almaraz

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobereizbar

LEGE-GORDAILUA
55-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 5**
PUY, Barrenkalea 25. 943 76 16 87
- ZAPATUA, 6**
MOZOS, San Pedro 4. 943 76 12 15
- DOMEKA, 7**
MOZOS, San Pedro 4. 943 76 12 15
- ASTELEHENA, 8**
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63
- MARTITZENA, 9**
PUY, Barrenkalea 25. 943 76 16 87
- EGUAZTENA, 10**
MOZOS, San Pedro 4. 943 76 12 15
- EGUENA, 11**
PUY, Barrenkalea 25. 943 76 16 87

TELEFONOJAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
- Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
- Ertzaintza 943 76 53 40
- Osasun etxea 943 76 24 40
- Asepeyo 943 76 16 43
- Pakea 943 76 13 49
- Angiozarko medikua 943 78 90 27
- Antzuolako medikua 943 76 62 23
- Odol emalleak 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06
- GARRAIOAK**
- Taxiak 943 76 19 50
- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
- Udal Artxiboa 943 77 91 32
- Igerilekuak 943 76 20 51
- Kultura etxea 943 77 91 58
- Liburutegia 943 77 91 62
- Kiroledegia 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza 943 76 13 68
- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
- Erregistroa 943 76 13 15
- Jardun 943 76 36 61
- Idolaz 943 76 65 08
- Erretiratuen etxea, Bergara 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
- Postetxea 943 76 26 85
- Bedelkar 943 76 04 68
- Akulu AEK 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia 943 76 44 53
- Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|--------------------------------|--------------------------------|
| San Pedro | Labegarieta |
| Domekak: 09:30, 12:30. | Domekak: 11:00. |
| Zapatuak eta lanegunak: 19:00. | San Lorentzo |
| Sierbak | Zapatuak: 20:00. |
| Lanegunak: 19:15. | Angiozar |
| Zapatuak: 19:00. | Domekak: 11:30. |
| Domekak: 11:30, 13:00. | Moja Zaharrak |
| Osintxu | Lanegunak: 09:00. |
| Domekak: 12:30. | Zapatuak: 11:00. |
| Zapatuak: 19:00. | Mizpirualde |
| Elosu | Lanegunak: 11:45. |
| Domekak: 10:30. | Zapatuak: 17:30. |
| Ubera | Antzuola |
| Domekak: 10:30. | Domekak: 09:00, 11:30. |
| San Juan | Zapatuak eta lanegunak: 19:30. |
| Domekak: 11:00. | Uzarraga |
| Elorregi | Domekak: 10:00. |
| Domekak: 10:30. | Elgeta |
| | Lanegunak: 09:00. |
| | Zapatuak: 19:30. |
| | Domekak: 12:00. |
- URTE-MEZAK**
- Santa Marina (Sierbetan)**
Hileko bigarren astean, domekan, 11:30ean.
- San Pedro**
Hileko hirugarren astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

1948AN JAIOTAKOAK
1948an jaiotakoen afaria irailaren 20an Zabala jatetxean, 21:00etan. Izenematea (42 euro) Euskadiko Kutxan irekitako kontuan.

INFORMATIKA IKASTAROAK
KZGuneak herritar guztientako informatika ikastaroak eskaintzen ditu. Argibideak Irizar jauregiko (Barrenkalea 33) lehen solairuan edo 943 76 73 24 telefono zenbakian.

MUSIKA ESKOLAREN OHARRA
Musika Eskolako arduradunek jakinarazi dutenez, eskolak astelehenean, hilaren 8an, hasiko dira. Argibideak 943 76 57 80 zenbakian.

ODOL ATERATZEA
Bergarako Odol Emaileen Elkarteak jakinarazi duenez, odol ateratzea egingo da eguaztenean, hilaren 10ean, 18:30etik aurrera.

KARTEL ETA ARGAZKI LEHIAKETAK SAN JOXEPEN
Kultur Hamabostaldiari begira, San Joxepe erretiratuen elkarteak kartel eta argazki lehiaketak deitu ditu. Kartel Lehiaketarako lanak irailaren 10era arte jasoko dira eta argazkiak, berriz, irailaren 22ra arte. Argibideak: 943 76 30 09.

JARDUNENAGENDA

BEGIRALEEN LAN POLTSA
Jardunek begirale lan poltza osatu nahi du, 9 eta 16 urte arteko gazteendako, aste bukaeretan antolatzen dituen jardueretako. Curriculumak aurkezteko azken eguna irailaren 12a izango da. Argibideak Errotaldeko bulegoan edo 943 76 08 19/943 76 36 61 telefono zenbakietan.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Sorraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zuradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolola (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN

**Kalteak
Olaso Dorrean,
udaletxeko
obren eraginez**


Olaso Dorreko fatxada pitzatu egin zen 1993ko udan, Bergarako udaletxea berritzeko lanen ondorioz. Olaso Dorreko ipar fatxadak 1,5 cm-tan behera egin zuen eta 2 cm-tan okertu zen. Olaso Dorreko Sorrerakundeko kideek Udalaren jarrera salatu zuten, beharrezko neurriak ez hartzeagatik.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Unamunixua”

Armonia ona, familiako edo lagunarteko giro ona. Unamunixo txarra ez omen da esaten. —Familiara ortan dago unamunixua.



HAUGIROA!

MINIMOA
Eguaztena, 27 **14 °C**

MAXIMOA
Eguaztena, 27 **36 °C**

ASTEKO EURIA (l/m²) **10,8 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 27	36 °C	14 °C	0,8 l/m ²
Eguena, 28	28 °C	17 °C	0,3 l/m ²
Egubakoitza, 29	28 °C	16 °C	— l/m ²
Zapatua, 30	23 °C	15 °C	2,3 l/m ²
Domeka, 31	24 °C	15 °C	5,4 l/m ²
Astelehena, 1	19 °C	15 °C	2 l/m ²
Martitzena, 2	23 °C	15 °C	— l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

ASTEKOFILMAK


'TERMINATOR 3'

ZUZENDARIA: JONATHAN MOSTOW. AKTO-REAK: ARNOLD SCHWARZENEGGER, NICK STAHL, CLAIRE DAINES.

HARIA. Connor hazi da, eta bere lagun indartsuarekin batera emakumezko "terminatrix" gogorri egin beharko dio aurre. Aurrekoetan moduan, efektu berezi aipagarriak dira nagusi.

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 19:30ean eta 22:15ean; eta astelehenean, 19:30ean (ikuslearen eguna).

PUNTUAZIOA: ●●●●●



'SHIN CHAN BOLA GALDUEN BILA'

ZUZENDARIA: KEIICHI HARA.

HARIA. Shin Chanek jarraitzaile ugari ditu Euskal Herrian. Orain Shin Chanen eta bere lagunentzako abenturak pantaila handian ikus-teko aukera dugu. Shin Chanek munduan kaosa sorraraz dezakeen pilota arriskutsu bat du eskuetan, eta ondorioz gaizkileak haren atzetik ibiliko dira.

TOKIA ETA ORDUA. Zapatuan eta domekan, 17:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●



Musika eta liburuak



Ibargarai 12 - 20570 BERGARA Tel.: 943 76 40 50 Faxa: 943 76 23 52
bergara@megadenda.com http://www.megadenda.com

ENPRESA/ Enpresa komitearen eta zuzendaritzaren artean hurbilketa egon den arren, baliteke astelehenean muga gabeko greba hastera

Lan Hitzarmena dela eta, abuztuan ere lan uzteak egin dituzte Mayc-eko langileek

MONIKA BELASTEGI

Uztailean egin zuten lehenengo lan uztea Mayc-eko langileek, Lan Hitzarmena negoziatzen hasi eta zuzendaritzarekin adostasunera iritsi ez zirenean. Komiteak orduan iragarri zuten, akordio egon ezean abuztuan ere greba egunak egingo zituztela, eta halaxe egin dute.

Bi greba egun egin dituzte: bata, abuztuaren 27an, eta, bestea, abuztuaren 28an. Besteak beste, hiru dira enpresako zuzendaritzaren eta batzordearen artean desadostasuna eragin duten puntuak, ELAko ordezkarien esanetan: soldatak, lan jardunaren murrizketa eta 60 urtetik gorakoei erreleboakako kontratuak aplikatzea.

Uztailean, bi aldeen arteko hasierako negoziazioetan, batzordeak honakoa eskatzen zuten: soldatak %6 igotzea eta urtean 22 orduko lan murrizketa. Enpresak aldiz, soldaten %4,5eko igoera eta urteko jardunaren lau orduko murrizketa eskaini zuten.

Asanblada orokorrak, hori onartu ez, eta abuztuan esandako bi greba egunak egin zituzten. Horrekin batera, gainera, egoerak bere horretan jarraituz gero, irailaren 8an, hau da, astelehenean aurrera, muga gabeko grebari ekingo ziotela ere iragarri zuten.

HURBILKETA TXIKIA ZUZENDARITZAREN ETA KOMITEAREN ARTEAN

ELA sindikatuko ordezkarien esanetan, aste honetan enpresako zuzendaritzaren eta enpresabatzordearen artean hurbilketa txiki bat egon da. Enpresak aldatu egin du bere eskaintza: soldaten kasuan igoera %5era igo du eta lan orduen murrizketa, berriz, 6 ordura igo du. Batzordeak,



Aste honetan enpresako zuzendaritzaren eta batzordearen artean hurbilketa egon dela azaldu dute ELAko ordezkariak.

Uztailean eta abuztuan hiru greba egun egin dituzte Mayc-eko langileek

berriz, soldaten igoera %5,5era jaitsi du eta lan orduen murrizketa 16 ordura. Hala ere, BERRIGARAko erredakzioa itxeko orduan -eguzten iluntzean-,

Soldaten igoera eta orduen murrizketa dira, besteak beste, desadostasuna eragin dutenak

negotiazioetan jarraitzen zutela adierazi zuten ELAko ordezkariak.

Gehitu zuten, egunean asanblada orokorra egitekoak

Aste honetan hurbilketa egon da zuzendaritzaren eta enpresabatzordearen artean

ziren Mayc-eko langileak eta han erabakiko zituzten eman beharreko hurrengo urratsak. Hala eta guztiz ere, adostasunera iritsi ezean astelehenean, irailaren 8an,

Astelehenean gauzak konpondu ezean astelehenean muga gabeko greba egingo dute

muga gabeko grebari ekingo ziotela ere adierazi zuten ELA sindikatuko iturriek. Uztailean ere iragarri zuten irailaren 8an muga gabeko greba egiteko aukera.

Paulo Elkorok gose greba hasi zuen astelehenean

MONIKA BELASTEGI

Munich-eko espetxean dago preso eta eman daitekeen estradizioaren aurrean ekin dio gose grebari. Izan ere, Nurenberg-eko epaitegiak onartu egin ditu Espainiak egindako bi estradizio eskariak. Alemaniako Epaitegi Konstituzionalaren errekurtsioa aurkeztu dute.

Abuztuaren 5ean onartu zituen Nurenberg-eko epaitegiak Espainiako agintariak egindako bi estradizio eskaerak: bata, kale borrokako ekintzetan parte hartzeagatik; bestea, ETAko kide izateagatik. Horren aurrean, Paulok bere defentsarako honakoa ale-

gatu duela azaldu du haren arreba: bere aurkako prozesu hau guztia torturapean lortutako deklarazioetan oinarritzen dela.

Nurenberg-eko epaitegiak estradizio eskariak onartu zituela jakitean helegitea aurkeztu zuen Paulok epaitegi horretan haren abokatuaren bidez. Baina epaitegiak helegitea onartu ez duela jakin zuen aurreko astean, haren arreba gehitu duenez. Hori horrela izanik, aste honetan Alemaniako Epaitegi Konstituzionalera jo eta han beste helegite bat aurkeztu dute. Epaitegi Konstituzionalaren dagokionez, erantzuna emateko epe mugarik ez dagoela azaldu du Kristina Elkorok. Hala eta guztiz ere, ez



Elkoro urtarrilaren 21etik dago preso.

dute uste gehiegi luzatuko denik erantzuna.

GOSE GREBARI EKITEKO BI ARRAZOI NAGUSI

Kristina Elkorok adierazi duenez, bi izan dira Paulo Elkorok gose greba hasteko eman dituen arrazoi nagusiak: "alde batetik, protesta egin nahi du Espainiako agintariak torturapean ateratako testigantzetan oinarritu direlako bere aurkako prozedura honean; eta Nurenberg-eko epaitegiak badaki hori horrela dela. Eta beste aldetik, Alemaniako estatuari eskatu nahi dio ez inplikatzeko, ez partehartzeko Espainiaren politika errepresibo horretan".

Kristina Elkorok gehitu duenez, bai Paulorentzat baita haren hurbilekoendako ere "kolpe gogorra" izan da estradizioen berria. Izan ere, haren arreba gogoratu du Paulok Alemanian ez duela akusaziorik; "atxilotu zuten unean dokumentazio faltua eramatea besterik ez. Horregatik, itxaropena geneukan Paulok Alemanian egindako asilo eskaera onartuko zutela".

HAREN ALDEKO ELKARRETARATZEAK DEITU DITUZTE, EGUAZTENERO

Aste honetan hasita, Paulo Elkororen egoera salatzeke elkarretaratzeak egingo dituzte eguaztenero, 19:30ean, San Martin plazan.

Ekainetik abuztura 1.973 kontsulta jaso dituzte Turismo Bulegoan

MONIKA BELASTEGI

Ekainaren 1ean hasi eta abuztuaren 31ra bitartean jaso dute kontsulta kopuru hori Turismo Bulegoan. Iaz 1.952 kontsulta jaso ziren epe berean. Turismo Bulegoa zabalik egongo da irailaren 30era arte.

Ekainetik abuztura arte jasotako 1.973 kontsulta horietatik, 307 bergararrek egindakoak izan dira; 566 euskal herritarrek; 825 espainiarrek -azken urteotan gertatu bezala kataluniarrek bereziki-; 219 europarrek, 47 amerikarrek eta 9 asiarrak. Bestetik, 54 bisitaldi gidatu egin dituzte, eta 464 lagunek hartu dute parte.

Hilez hileko banaketari dagokionez, abuztua izan da kanpotar gehien hurbildu den hilabetea: ekainean 467 kontsulta jaso dituzte bulegoan; uztailean, 579 eta abuztuan, 927. Irailari dagokionez, hilaren 30era arte egongo da zabalik bulegoa, ohiko ordutegian, eta Xabier Aranburu Turismo Bulegoko arduradunak esan duenez, irailean 500 lagun inguru joatea espero dute.

Aranburuk azaldu duenez, azkeneko hiru urteotan bulegoan jasotako kopuruak oso antze-



Estatukoaren artean kataluniarrek izan dira, ohi bezala, gehien etorri direnak.

koak dira, eta gehitu du herrira etortzen den turista kopuruak goia jo duela: udako denboraldian 2.500-2.700 kontsulta artean jaso dituzte azkeneko hiru urteotan.

Horri Aste Santuan eta zubietan etortzen direnak gehituz gero, azkeneko hiru urteotako joera ere oso antzekoa dela dio Aranburuk; 3.500-4.000 kontsulta artekoa.

Hainbat etxe bota dituzte Zubiaurren eta Arrizuri alboan

MONIKA BELASTEGI


Abuztuan barrena hainbat eraipen egin dituzte herrian: alde batetik, Zubiaurre kalean bi etxebizitza bota dituzte; beste aldetik, Unceta jauregiaren lurretan, Arrizuri parkearen ondoan zegoen etxe bat.

Zubiaurre kaleari dagokionez, 4 eta 6 atariei zegozkien eraikina eta 7 zenbakiari zegokiona bota dituzte. Abuztuaren azkenetan ekin zioten eraikinak erausteari, eta hainbat egunez itxita egon da errepidea ibilgailuendako.

Udaleko iturrien esanetan, etxebizitza berriak eraikiko dituzte bi orubeotan. Etxebizitzok erai-

kitzen laster hasiko diren arren, lanei zehazki noiz ekingo dieten eta zenbat egingo dituzten jakiterik ez dagoela aurreratu dute iturri berberak, enpresa eraikitzaileek oraindik ez dutelako behin betiko proiekturik aurkeztu Udalean.

Unceta jauregi ondoko etxe-ari dagokionez -kontserjearena zeritzona-, hirigintza proiektu zabalago baten barruan dago. Udalaren asmoa da Mariaren Lagundiaren albotik Zabalotegira doan errepidea Ibargaraioko biribilunearekin lotzea; goitik beherako errepidea egitea, hain zuzen ere. Hori horrela, proiektu horren barruko urratsa izan da esandako etxea botatzea.



ENEKO AZARF

Mariaren Lagunditik Ibargaraioko biribilunerako errepidea egiteko proiektua dago.

Biribilunea egin dute Amillagan

Amillaga auzoan, IATren parean, biribilune berria egin du Udalak, abuztuko oporraldia aprobetxatuta. Herriko sarrera-irteera hori eta errepidearen bi alboetan dauden lantegietako irteerak erregulatzeko egin dute. Udaleko iturriek esan dutenez, ibilgailu ugari ibiltzen da errepide horretan, eta lantegiak ere asko direnez, auto ilarrak ekiditeko egin dute biribilunea.

Biribilune hori lurrean margotu dute eta zutiko seinaleekin inguratu dute.






LABUR

Txapa Irratiko kideek irratian parte hartu nahi dutenei dei egin diete

Irratsaioren bat egin edo Txapa Irratiko partaide izan nahi dutenentzako deialdia egin dute irratiko kideek. Bilera bihar, zapatua, izango da, 12:00etan, Zabalotegiko dorrean duten egoitzan, eta interesatuen guztiak hara hurbil daitezke. Txapak laster ekingo dion emisioari, 97.25ean.


Jolasleku Ibiltaria antolatu du Jardun euskara elkarteak ikasturte berrirako

Lehenengo ekitaldia irailaren 19an izango da, Espoioan; bigarrena, irailaren 26an, parkean; hirugarrena, urriaren 3an, Fraisko zurin; eta laugarrena, urriaren 17an, Espoioan. Ekitaldiok 17:00etatik 19:00etara izango dira.

-  Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
-  Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!
-  Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin

Gainditu **motorraren** azterketa teorikoa 16 urte bete aurretik!
Eta **autoarena** 18 urte bete aurretik!

943 76 16 63 BERGARA



ARRAÑAGA

A U T O E S K O L A

HEZKUNTZA / Bergarako Helduen Heziketa Iraunkorreko ikastetxeak ikasturte berriari ekingo dio irailan

Helduen Eskola: inoiz ez da berandu liburu eta apunteen artean murgiltzeko

EDU MENDIBIL

Bergarako Helduen Heziketa Iraunkorreko eskolak (HHI-EPA) 2003-04 ikasturterako matrikula epea zabaldu du. Adin guztietako ikasleei formazioa eskaintzea da eskolaren helburua. Gazteak ez ezik, ikasle beteranoek ere eskolara itzuliko dira egunotan.

Aurten ere eskaintza zabala izango du HHIk: irakurketan sakontzeko maila, kultura zabalkundearen deritzona, etorkinendako eskolak eta Bigarren Hezkuntzako eskola graduatua eskuratzeko mailak izango dira Bergarako zentroan. Nobedade gisa, oinarrizko euskara eta ingelesa eskainiko dira aurten.

HHI-EPA zentroa Irizar jauregiko bigarren solairuan dago, eta eskolak goizez zein arratsaldean izaten dira. Era berean, 25 urtetik gorakoei zuzendutako unibertsitatetako sarrerarako eskolak ere ematen dituzte, 18:00etatik 21:00etara. Zazpi irakaslekin dihardute eskolak ematen eta joan zen ikasturtean 101 ikasle ibili ziren. Irakaskuntza doanekoa eta ofiziala dela gogoratu nahi dute arduradunek.



Miren Gurutze Arana, Estibaliz Errekalde, Marian Padilla eta Nati Garcia irakasleak (laurak zutik) joan zen ikasturteko ikasle talde batekin.

E.M.

ATZERRITARRAK ESKOLAN

Imram Mohammad eta Shabier Hussain pakistandarrak dira eta iaiz gaztelaniako eskolak jaso zituzten HHIk: "Bergaran Pakistandik etorritako 35 bat lagun izango gara, eta hemen gaztelaniako eskolak ematen zituztela komentatu ziguten. Hona etorri eta oso gustura izan gara, gure antzeko egoeran zeuden beste hainbat ikaslerekin batera". Lidia Buraga, esaterako, Errumaniatik etorritakoa da, eta Daniela Dimitrova bulgariarra dugu. Danielak zera adierazi digu: "Ni baino lehen gizona etorri zen lanera. Orain dela bederatzi hilabete heldu nintzen eta gaztelania ez nuen gutxi ere ulertzen. Orain, eskolan ikasitakoari esker, banaiz gauza nolabait moldatzeko. Senarrak esan zidan eskolara etortzeko, eta primeran etorri zait. Gure seme-alabek laster euskaraz hitz egingo dute euren adinekoekin, eta euskara ikasi nahi nuke lehenbaiten".

Kontxi Godoy eta Jesus Gomez-en egoera bestelakoa da. Biak ere ikasteko plazerragatik hurbildu ziren Helduen Eskolara. Orain gutxira arte lanean izan ondoren, Jesus gustura ibili da liburu artean: "Seme-alabek lana uzteko garaia zela eta beste zerbait egiteko esan zidaten. Txikiteoan ibiltzeko ez zait gustatzen, eta nahia-go nuen denbora libre zerbait ikasteko aprobetxatu. Burua aktibo izateko oso ondo dago, terapia moduko bat da eskola niretako".

Ikasturte berrirako matrikula epea irailan zehar egongo da zabalik Irizar jauregian

Kontxik ere familiari eskaini dizkio ordu asko eta asko, eta garai batean ikasitakoa gogoratzeko eta gauza berriak ikasteko helburuarekin eskolara bueltatzea erabaki zuen. Hark esaten duenez, inoiz ez da berandu.

ARRETA BEREZIA IKASLE BAKOITZARI

Miren Gurutze Arana irakasleak ikasle bakoitzari bere mailaren arabera arreta berezia eskaintzen zaiola azpimarratzen du: "Ikasle asko eta asko larritu egi-

Nobedade gisa, oinarrizko euskara eta ingelesa eskainiko dira aurten

ten dira albokoak gehiago jakin-go duela pentsatzean, baina ez da horrela. Guztien jarraipena egiten saiatzen gara eta esan beharra daukat askotan ikasleok gure ikasleengandik gauzak ikasten ditugunak. Alde horretatik oso aberasgarria da helduekin lan egitea".

Ikasten dutenarekin ikasleek gozatzea da HHIren helburu nagusietako bat, eta Antonia Caballero horren adibide garbia dugu: "Etxetik irteteko motibazio

Adin guztietako ikasleei formazioa eskaintzea da eskolaren helburu nagusia

bat izan da eskolara etortzea. Jende berria ezagutzeaz gain, gauza berriak ikastea gauza ederra izan da niretako. Hizkuntza eta Informatika izan dira nire ikasgai gustukoena. Matematika, berriz, ez dut horrenbeste atsegin...". Virtudes Garcia-Pascualek ere ikasturtearen oso balorazio positiboa egiten du: "13 urtetik 50 urtera arte lanean ibili naiz eta gutxiak gutxiak gauzak ikasten hasi naiz, inolako helburu barik. Informatikako gauzak ikastea, adibidez,

primeran datorkigu guri ere, eta uste baino hobeto moldatu gara ordenagailuarekin...".

UNIBERTSITATERAKO SARRERA


Bestalde, Loli Condek helburu jakin batekin jo zuen Helduen Eskolara: unibertsitatara joateko, hain zuzen ere. Lolik 37 urte ditu eta Artearen Historia ikasi nahi luke Gasteizen: "Hainbat arrazoiengatik UBI egin eta gero ez nuen selektibitatea egin, eta laga egin nituen ikasketak. Orain, ikasketei eutsi nahi diet berriz, eta primeran etorri zait hona etortzea, motibatutako talde batekin lan egiteko aukera izan dut eta". Unibertsitatara joateko ikastaroa egin zuten zazpi ikasleetatik guztiek gaingitu dute azterketa.

Oraindik ere unibertsitatea pixka bat urrun duten arren, agian hara helduko dira baita Leire Ortiz de Zarate (20 urte) eta Karmele Vizarro (38 urte) ere. Leirek Bigarren Hezkuntzako titulua eskuratzeko aukera izan du: "Eskolan ez zidaten lagatzen ikasturtea errepikatzen, eta hemen bigarren aukera eman didate". Karmelek eskola utzi behar izan zuen gaztetan, ondoren pelukeria ikasi zuen, baina ikasketekin arantza bat zuela diosku: "Gure semea DBH ikasten dabil, eta hark ez dakizun zerbait galde diezazuke. Etxetik irteteko ere aitzakia ona da eskolara etortzea, oso giro ona dagoelako gure artean. Ikasi eta, bide batez, primeran pasatzen dugu".

1a 20 urteko ibilbidea duen eskola

Ikasteari lagatzen dionean hasten da pertsona zahartzen, dio helduen eskolako sarreraren ondoan zintzilikatutako orri batek. Bergara HHI ikastetxea 1985ean jarri zen abian eta orduetik hona makina bat ikasle igaro dira Irizar jauregiko geletatik. Miren Gurutze Arana eskolako zuzendariak emandako datuen arabera, 650 titulu banatu ditu eskolak azken 18 urteotan. Aranak 13 urte daramatza helduen eskolan lanean eta ikasturte berri

bati ekiteko prest dago. Eskolak iraileko azken astean hasiko dira, taldeak osatu ahala. Doaneko matrikula egiteko interesatuek Irizar jauregira jo dezakete, 09:30etik 13:30era eta 18:00etatik 19:00etara. Miren Gurutze Aranak zera azpimarratzen du: "Hona etortzen diren ikasleen motibazioa piztu beharrik ez dago. Ikasteko borondatea eta interesa etxetik ekartzen dute, eta horrela gauzak asko errazten dira".





TOURREKO KINIELAKO IRABAZLEAK

Herriko txirinduzale talde batek antolatutako Tourreko kinielan Fran Martinez bergararra izan zen irabazlea. Ohiko faboritoez gain, Vinokourov eta Virenque aukeratu zituen Franek, eta berak lortu zuen puntu gehien (1.379) Tourraren amaieran. Ondorioz, 1.480 euroko saria jaso zuen Franek. Felix Zubiak (1.236 puntu) eraman zuen bigarren saria (888 euro) eta Manuel Aranburu *Pollero* eta San Horriilo antzuolarrendako (1.230 puntu) izan zen hirugarrena (444 euro). Argazkian, saritutakoak kinielaren antolatzaileekin.

UDALTZAIN BERRIAK

Koldo Medrano bergararra (goiko argazkian) eta Borja Perez de Lezea tolosarra udaltzain berriak ditugu. Unai Egaña, Xabier Ansa eta Aitor Imaz zarautzarrak euren jaioterrira joan dira lanera, eta haien lekua betetzera etorri dira Borja eta Koldo. Biek ere esperientzia luzea dute: Koldo 16 urtez izan da udaltzaina Eibarren eta Borjak Tolosan eta Arrasaten egin du lan. Momentuan 14 udaltzain dira herrian.



GARAGARDOTEGIA IREKIKO DUTE PLAZAN

Hogei urte baino gehiago dira San Martin plazan zegoen Americano taberna (beheko argazkian) itxi zutela. 1979ko azarotik San Martin plazan tabernarik egon ez bada ere, haren lekuan garagardotegi bat zabaltzeko asmoa du Jose Mari Garcia Etxenagusiako jabeak. Iris Pub Galway izena izango du, abenduaren hasieran irekiko dute, eta antzeman dezakezuenek, Irlandako garagardoa izango da nagusi.

AGOITZ

tapiz
denda


Leizariako
San Lorenzo, 25
BERGARA
Tel.: 649 112 675

**BEHEKO
TABERNA**

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tf.: 943 76 55 74

MINGAINARITIRAKA



Rafael Aguilera

URBANOKO GIDARIA

Kordobako Iznajar herrikoa jaiotzez, mutikotan etorri zen Euskal Herrira Rafael (54 urte). Arrantzale lanetan eta soldadore lanetan ibilitakoa da eta martxoan ezkerro urbanoko gidarietako bat dugu. Ezkonduta dago eta seme bat daukate.

- Bolantean haserretzen den horietakoa zaitugu?**
Normalean ez, pazientzia handikoa naiz-eta. Hala ere, batzuetan zaila da lanean diharduzula ez haserretzea.
- Zuk zeuk garraio publikoak erabiltzen dituzu?**
Oso gutxitan, nahiago dut nire autoarekin bidaiatu.
- Laneko gauza onena eta txarreana?**
Onena, jende atseginarekin topo egiten dudala. Txarreana, zenbait jenderekin noizean behin izaten diren gaizki ulertuak-edo.
- Zure lanerako beharrezko dohaina?**
Pazientzia eta jendearekin ondo eroaten jakitea.
- Gidabaimena lehenbizikoan eskuratu zenuen?**
Autoarena bai. Kamioiarena bigarrenagoan.
- Mekaniko ona zara?**
Ez pentsa, oinarritzko gauzak bakarrik dakizkit.
- Urbanoan, musika ala irratia?**
Normalean irratia, baina batzuetan jartzen dut musika kasetere bat. Rocka eta technoa atsegin ditut.
- Egunkarian irakurtzen duzun lehenbiziko gauza?**
Azala, titularrak.
- Aisialdian zer egitea gustatzen zaizu?**
Filmen bat ikusi, emakumearekin paseatu...
- Denboraldi berrirako asmo berriren bat?**
Antzera jarraituko dut. Hori bai, euskara ikasi nahi nuke.
- Gustuko janari eta edari bana?**
Kokotxak almejekin eta ardo latza.
- Zer egingo du Realak aurten?**
Goiz da esateko, baina Real Madrilen aurretik geratuko da.
- Kinielan edo loterian jokatzeko duzu?**
Loteria Primitiboa egiten dut.
- Eta milioi bat euro irabaziko bazenu?**
Berdin jarraituko nuke eta agian etxe bat erosiko nuke, Iparraldean-edo.
- Bidaia bat, nora?**
Arrantzale ibili nintzenez eta petroliontzietan lan egin nuenean ere nahikoa bidaiatu nuen.

EDU MENDIBIL

BERGARARRAKMUNDUAN

LUIS UGALDE

64 URTE / ANDRES BELLO UNIBERTSITATE KATOLIKOKO ERREKTorea / VENEZUELAN BIZI DA

“Lehenbizikoz bihotzarekin eta bigarrenkoz paperekin nazionalizatu nintzen venezuelar”

EDU MENDIBIL

Batxilergo ikasketak amaitu eta gero, jesuita sartzera erabaki zuen Luis Ugaldek, 1956an. Handik gutxira, Venezuelen boluntarioak behar zituztela-eta, hara joateko eskaintza onartu zuen: “1957ko martxoan iritsi nintzen, nire adineko beste sei boluntarioekin. Aurretik bi egun izan nituen familia agurtzeko, orduko agurrak bizi osorako ziren-eta. Handik 10 urtera itzuli nintzen gure baserrira, Moyuara, Alemaniara egindako bidaia bat aprobetxatuz”.

Ugaldek 13 urte daramatza Andres Bello Unibertsitateko errektore karguan. Caracas, Guayana eta Coro hirietan 15.000 ikasle dituzte: “Lan nahikoa daukagu, eta gure lehenbiziko helburua kalitatezko eta sozialki konprometitutako unibertsitatea lortzea da. Era berean, unibertsitateko irakasle eta ikasle asko herri eskolekin eta komunitateekin kolaboratzen dugu osasuna, hezkuntza, arreta psikologikoa eta bestelako zerbitzu batzuk hobetzeko asmoz. Duela hiru urtetik bergarar gazte batek, Eneritz Iburguren, dihardu gurekin lankidetzan”.

Bestalde, abade lanak La Praderan, La Vegako auzo oso pobretatean, egiten ditu Ugaldek: “Kristau komunitateak goraka egin du eta gure eta unibertsitatearen laguntzari esker, 500 neska-mutikorendako eskola daukagu, 60 umerendako bihurtu zaindegi, osasun zentro bat, gazteendako taldeak... Hori guztiori hezkuntza, osasuna eta espazio publikoen arloan erakunde ofizialen utzikeria nabarmena den auzo batean edukitzea ez da gauza erraza izan”.

Injustizia sozialen aurrean ahotsa altxatzen duen horietakoa da Ugalde: “Petrolioari esker

“Kalitatezko eta sozialki konprometitutako unibertsitatea lortu nahi dugu”

diru-sarrera handiak dituen herrialde honetan injustiziak begi bistan daude. Giza sektoreen arteko diferentziak ikaragarriak dira eta Venezuelak ez du jakin izan sektore pobreenak integratzea, enplegurako eta bizi-modu duinerako aukera ukatu die. Azken 24 urteotan baztertzeko eta pobretzerako joerak nabarmen okerrera egin du eta Venezuelako etorkizuna zalantzagarria da oso, biztanleriaren 2/3 pobrezia jeta dagoelako.

Gobernuak ere



ez du jakin izan oposizioan hain bestetan salatu duen ustelkeriarekin amaitzea. Hala ere, benetan sozialki konprometitutako eta instituzio demokratikoen berreraikitzea burutuko duen gobernua izateko itxaropena ez dut galtzen”.

Ugaldek euskal-venezuelarizat dauka bere burua: “Hasieratik jendeak primeran hartu gintuen, eta 30 urte baino gehiago dira nazionalizatu nintzenetik. Lehenbizikoz bihotzarekin eta bigarrenkoz paperekin nazionalizatu nintzen. Heldu-bizimodu osoa hemen egin dut, eta Soziologia eta Historia ikasketak Venezuelen bideratu ditudanez, erabat identifikatua sentitzen naiz herrialde honekin. Nahiz eta Bergara, haurtzaroko txokoa, sekula ahaztu ez, hemen jarraitzeko asmoa dut. Lanegatik, urtero Europara joan beharra izaten dut, eta Bergarara joateko aprobetxatzen dut beti. Kaleetan eta inguruko mendietan paseatzea gustuko dut, herria zelan aldatzen dabilen ikusteko eta txikitzen estimatzen ez nuen paisaiaren edertasunaz jabetzeko”.

Duen aisialdi laburrean palan jokatzeko eta unibertsitateko lorategia zaintzeko atsegin du: “Arbolak eta loreak landatzea, ureztatzea... oso lasaigarria da. Gure ikasleei-beti esaten diet zabortegian baino gehiago hobe dela lorategi eder batean ikastea...”.

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10
BERGARA OÑATI
943 76 45 53 943 78 24 13

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel. 943 76 15 09

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

FUTBOLA

Preferente mailako taldeak Berion emango dio hasiera ligari, domekan

Juanina Garaik zuzendutako taldeak hirugarren mailara igotzeko lehia jardutea du helburu

EDU MENDIBIL

Bergara KEko preferente mailako taldeak ligako lehen partidua jokatu du domekan Donostian, Berion, 17:00etan. Mahoneroek hirugarren mailara igotzeko lehia egon nahi dute. Juanina Garai entrenatzailea pozik dago osatutako taldearekin.

Hainbat aurpegi berri dira taldean hastear dagoen denboraldirako: Aloña Mendin jardundako Xabi Lete eta Iñaki Muxika Bergarara itzuli dira eta beste horrenbeste gertatu da aurreko denboraldian, hurrenez hurren, Beasainen eta Aretxabaletan jokatu zuten Josetxo Lizarralde eta Jon Sanchezekin. Horrez gain, Ibai Zankada eibartarra eta Iban Unanue antzuolarra fitxatu ditu Bergarak eta gazte taldetik Mikel Rodriguez eta Unai Agirre igo dira. Taldea utzi dutenei dago kienez, Asier Rodriguezek eta Jokin Mendaratzek futbola laga dute eta zalantzazkoa da Xabi Arregik jarraituko duen edo ez.

Juanina Garaik laugarren denboraldia beteko du mahoneroen aulkian. Arrasatearra baikor da, baina ez du igoera obsesioa bihurtzea nahi: "Partiduz partidu ikusiko da taldearen benetako maila. Iaz bezala, goialdeko postuetan egotea da helbu-



Aurpegi berrietako batzuk Garai entrenatzailearekin. Ezkerretik eskumara, zutik, Unanue, Agirre, Lete, Garai eta Leiba entrenatzailearen laguntzailea. Makurtuta, Muxika, Unamuno prestatzaile fisikoa, Sanchez eta Zankada.

rua, baina igoera lortzea zaila da. Azken partidura arte talde onekin batera borroka horretan egon nahi dugu".

Domekan lehenbiziko partidua izango dute Berionen aurka Donostian, 17:00etan. Azken bi

denboraldietan Bergarak berdinketa lortu du Berion. Garaik zera dio: "Irabazten badugu hobeto, baina ez litzateke emaitza txarra izango puntu bat lortzea". Berionen entrenatzailea Larrañagako Realeko jokalaririk ohia da.

HAINBAT BAJA DOMEKARAKO

Domekako partidurako hainbat baja izango ditu Bergarak: Ibai Zankada, Jon Sanchez eta Josetxo Lizarralde lesionatuta daude eta Oier Loiolak partidu bateko zigorra bete behar du.

Preferenteko taldea

ATEZAINAK	
Markel Egaña	26 urte
Ander Ruiz	21 urte
DEFENTSAK	
Aitor Berraondo	23 urte
Markel Lazpiur	21 urte
Aritz Agirre	20 urte
Julen Berraondo	20 urte
Xabi Lete	22 urte
Oier Loiola	23 urte
Mikel Rodríguez	19 urte
Ibai Zankada	19 urte
ERDILARIAK	
Oskar Maiztegi	28 urte
Gorka San Vicente	24 urte
Jon Alzola	20 urte
Josu Zubikarai	20 urte
Andoni Arrieta	21 urte
Mikel Otero	22 urte
Josetxo Lizarralde	27 urte
Iñaki Mujika	22 urte
Jon Sánchez	20 urte
Unai Agirre	19 urte
AURRELARIAK	
Iban Unanue	20 urte
Julen Aranburu	20 urte

Entrenatzailea: Juanina Garai
Laguntzaileak: Raul Leiba eta Mikel Osoro
Prestatzaile fisikoa: Eñaut Unamuno
Atezainen entrenatzailea: Lauri Askargorta
Fisioterapeuta: Larraitz Madariaga

Garaik ez du uste aurrelarien falta duenik: "Unanue eta Aranburuz gain, Lizarralde eta Mujikak ere aurrean jokatu dezakete. Taldea orekatua dago". Bergarako trofeoan, mahoneroek Aloñaren aurka galdu zuten, 4-2.

Astelehenetik egubakoitzera, igerilekua itxita

E.M.

Agorrosingo igerileku estalia itxita izango da astelehenetik egubakoitzera bitartean, garbiketa lanak egiteko. Bien bitartean, kirolgune berriko lanak hasteko Udalak zehaztutako epeak ez dira betetzen ari.

Kirol Zerbitzuak jakin arazi duenez, garbiketa lanak egiteko itxiko dute igerilekua hurrengo astean, hilaren 8tik 12ra. Datorren zapatuan irekiko dute berriz, ohiko ordutegiarekin: aste barruan 07:00etatik 21:00etara izango da zabalik eta zapatuetan eta jaiegunetan 09:00etatik 19:00etara.


Gogoratuko duzue, joan zen irailean kanpoko zein barruko instalazioak itxi ondoren, eta erabiltzaileei zerbitzu bat eskaintzearen, Udalak kanpoko igerileku txikia estaltzeko erabakia hartu zuen. Artzamendi Eraikuntzak enpresak egin zituen beharrezko egokitze lanak eta martxoaren 24tik igerilekua zaba-

lik dago. Era berean, Debagoieneko kirol txartelarekin Arrasate edo Oñatiko igerilekuak erabiltzeko aukera dago. Logikoa denez, beste urte batzutan baino jende gutxiago ibili da aurtengo udan Agorrosingo igerilekuan. Hala ere, jende dezente joan dela adierazi digute bertako langileek. Antza denez, uztailen abuztuan baino jende gehiago ibili da.

PROIEKTU BERRIA, ATZERATUTA

Bien bitartean, kirolgune berriko proiektua nabarmen atzeratzen ari da. Lehen fasea egiteko lanak maiatzaren hasiko zirela agindu zuen alkateak neguan, baina lanak adjudikatzeko daude oraindik.

Alvaro Perez de Amezaga eta Jorge Muntaniola arkitektoek landutako proiektuan hiru fase aurreikusten dira. Lehenbizikoa, esan bezala, maiatzaren abian jartzekoa zen eta, besteak beste, bi igerileku estali (21x25 m eta 20x5,5 m), aldagelak, gimnasioa, squasharako frontoia, haurtzaindegia



Kanpoko igerileku txikia estali eta martxoaren 24an zabaldu zuten.

eta kafetegijate txea eraikitzea jasotzen da. Hasiara batean lehen faseak 6.915.900 euroko aurrekontua izango du eta 2005. urterako amaituta egotea zen asmoa.

Gainerako bi faseak, berriz, 2007. urterako amaitzea aurreikusten zuen. Proiektu osoaren aurrekontua 10.704.220 euro (1.781.000.000 pezeta) ingurukoa da.

ARETO FUTBOLA

Labegaraietako txapelketa irailaren 27an hasiko da

Areto futbol txapelketa irailaren 27an hasiko da. Izene-matea zabalik dago, eta talde bakoitzak 170 euro ordaindu beharko ditu parte hartzearen. Hilaren 17an taldeetako ordezkariak batzarra egingo da kultura etxean, 18:30ean.

ESKUBALOA

Aniarteko bi eskubalo partidu larunbatean

Bergara KEko eskubalo sailleko bi taldek aniarteko partiduak izango dituzte bihar, zapatua, kiroldegian: gazte mailako mutilen taldeak Gure Auzuneren aurka jokatu du bihar, zapatua, 16:30ean. Nagusi mutilen taldeak ere Gure Auzuneko aurka jokatu du, 18:00etan.



Aerobika egiteko aukera ere egongo da asteleheneretik aurrera.

ARTXIBOA

KIROLDEGIA

Kirol Zerbitzuak denboraldi berrirako kirol eskaintza kaleratu du

Aerobik, 'spinning', sasoiaren egoteko gimnasia eta dantza eskolak astelehenera hasiko dira

E.M.

Udal Kirol Zerbitzuak denboraldi berrirako kirol eskaintza kaleratu berri du. Aurtengo nobedadeetako bat kiroldegian izango diren *spinning* eskolak ditugu. Astelehenera hasiko dira hainbat jarduera.

Astelehenera, hilaren 8an, aerobik, *spinning*, sasoiaren egoteko gimnasia eta dantza garaikideko eskolak hasiko dira. Esan bezala, *spinning*-a izango da nobedadea. Saiok bizikletan, taldeka eta musikarekin egiten dira, irakasle baten zuzendaritzapean. Saioren iraupena 50 minutu ingurukoa da. *Spinning* eskolak astean bi egun izango dira: astelehen eta eguaztenetan, eta martitzen eta eguaztenetan. Argibideetarako eta izena emateko 943 77 91 67 telefonora dei dezakete interesatuek.

Sasoiaren egoteko gimnasia bi eta hiru egunetan izango da eta, beste jarduerekin gertatzen den moduan, aukera zabala dago ordutegiari dagokionez. Eskolak Labe-garaietako kiroldegian, Aranzadi Ikastolako Matxiategiko gimnasioan eta Mariaren Lagundiko gimnasioan izango dira.

Aerobika egiteko aukera ere izango da asteleheneretik aurrera. Goizez eta arratsaldean jaso daitezke eskolak eta astean bi edo hiru egunetan izango dira.

Azkenik, dantza garaikidea astean egun batez izango da, 19:30etik 20:30era bazkideendako eta 20:30etik 21:30era bazkide ez direnendako.

Jarduera bakoitzerako prezio ezberdina ezarri du Kirol Zerbitzuak. Edozein modutan, hileko 13 euro eta 28 euroren artean kokatzen dira prezioak. Esan bezala, argibideetarako Kirol Zer-

bitzura jo behar da. Dagoeneko hainbat jardueratan eta ordutegitan plazak beteta daude; beraz, izena lehenbailehen emateko eskatzen dute antolatzaileek.

YOGA ESKOLAK AURRERAGO

Bestalde, Kirol Zerbitzuak jakinarazi duenez, yoga ikastarorako izenematea irailaren 17an zabalduko da. Oraindik eskolak noiz hasiko diren zehazteko dago. Aurreko urteotan moduan, Jose Luis Armendia arrasatearra izango da irakaslea.

Era berean, denboraldia aurrera joan ahala beste ikastaroratzuk ere antolatuko ditu Kirol Zerbitzuak. Besteak beste, tenis ikastaroa, elbarriendako jarduera fisikoa, igeriketa ego-kitua, nagusiendako gimnasia eta igeriketa ikastarorak izango dira udazkenean.

Xake Astea jokatu da martitzenetik aurrera Bergaran

E.M.

San Martin jaien atarian, Xake Astea izango dugu Bergaran martitzenetik aurrera. Egun horretan, 19:00etan hasita, xakeko aldi bereko jokaldiak izango dira San Martin plazan. Eguaztenetan, hilaren 10ean, Eskola Arteko Txapelketa jokatu da Bergarako Xake Taldearen egoitzan, Zabalotegin, 18:00etan. Eguenean, berriz, xakeari buruzko pintura, marrazki, komiki eta ipuinen eskola arteko lehiaketa izango da Zabalotegin, 18:00etan. Eta egubakoitzean, hilaren 12an, Blitzeko Match Txapelketa jokatu da

Zabalotegiko lokalean, 19:00etan. Horieta edozein txapelketatan parte hartzeko interesa dutenek Xake Taldeko Edurne Zabaletari (943 76 40 79) dei diezaiokete.

BERGARA HIRIA TXAPELKETA

Bestalde, Xake Astearekin jarraituz, irailaren 13an gaztetxo eta gazteei zuzendutako Bergara Hiria xake txapelketa irekia jokatu da Ipintza Institutuan, 10:00etan. Xakearekiko zaletasuna piztea da helburua.

Irailaren 14an, berriz, Euskal Herriko jokalarion onenetakoen etorriko dira Bergara Hiria jokatzera.

Kirol Argazkien Lehiaketan parte hartzeko azken egunak

E.M.


Udal Kirol Zerbitzuak deitutako Kirol Argazkien Lehiaketan parte hartzeko epea irailaren 23ra arte egongo da zabalik. Aurtengo lehiaketaren 13. ekitaldia izango da, eta, aurrekoetan moduan, Euskal Herriko edozein argazkizalek parte hartzeko aukera izango du. Zuri-beltzeko zein koloreetako lanak aurkeztu ahal izango dira, eta modalitate bakoitzeko, gehienez, lau lan onartuko dira. Bi kategoriotan sariak berberak izango dira: irabazleak 150 euro eta trofeoa jasoko ditu, bigarrenak 120 euro eta

trofeoa eta hirugarren sailkatzen denak 90 euro eta trofeoa. Era berean, kategoria bakoitzeko herriko onenak 60 euro eta trofeoa eskuratuko ditu.

LAN ONENEKIN ERAKUSKETA URRIAN

Esan bezala, lanak aurkezteko azken eguna irailaren 23a izango da. Argazkiak Udal Kirol Zerbitzura bidali beharko dira, eta 30x40 cm-ko kartulinetan aurkeztu.

Epaimahaiak irailaren 23an emango ditu aditzera saritutako lanak eta aurkeztutako argazki onenekin erakusketa egingo da urriaren 3tik 12ra kultur etxean.



JUAN ANTONIO UNTZURRUNTZAGA

Kalitate handiko lanak aurkeztu izan dira lehiaketaren aurreko edizioetan.

DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefono Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

PINTXO eta BOKADILOAK SEKULAKO MARTXA!!
EUXEBIO II
Irala z/g Bergara
943 76 07 92

GALLASTEGI


Deskontuak: %30 eta %50

- Alkandorak
- Punto blanco galtzontzilo eta kamisetak
- Pijamak

Eskaintza bereziak

- Kamisetak eta kuleroak 2 eraman eta 1 ordaindu
- Galtzerdiak 3 eraman eta 1 ordaindu
- Emakumeendako batak

San Pedro 15 20570 Bergara · Tel.943 76 10 85

Verónica Fernández aktorea da *Naná*, antzezlaneko pertsonaia bakarra.

'La niña que sueña lunas también se mea en la cama' lana egingo dute

Antzerkiola Imaginarioa taldea gaur Zabalotegin

MONIKA BELASTEGI

Bilboko Antzerkiola Imaginarioa taldeak emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, 22:30ean, Zabalotegi aretoan. *La niña que sueña lunas también se mea en la cama* azkeneko lana egingo du. Iaz 8 *Olivetti poetiko* lanarekin ikusi genuen taldea herrian.

La niña que sueña lunas también se mea en la cama balada garai-kidetzat definitu du zuzendariak, Peru C. Saban-ek.

Gaur egungo gizartean zarat handiegia dagoela dio istorioak, eta entzuteko dagoen arazoz dihardu. Gaur egungo gaiak jorratzen ditu, eta, zuzendariaren esanetan, antzezlan hori konposizio poetikoa da, maitasun istorioa, azken batean.

Aurrez ere ikusi izan dugu Antzerkiola Imaginarioa taldea Bergaran: 8 *Olivetti poetiko* lanarekin etorri ziren iaz. Lan hartan hamaika aktorek hartzen zuten parte. *La niña que sueña lunas también se mea en la cama*, berriz, formatu txikiko lana da, aktore

bakarrekoa: *Naná* neskatxo gaztea, hain zuzen ere. *Naná*-k nortasunaren banaketa du, nagusitu nahi ez duen neskatua da, eta inozentziak baliatzen da mingarria izan daitekeen edozer berarengandik aldentzeko.

LANTALDEA

Neskatoari, *Naná*-ri, bizitza ematen dion aktorea Verónica Fernández aktorea da; testua Jon Gerediaga eta Peru C. Saban-ena da; musikari dagokionez, Aitor Agirianok egin du; eta eszenografia Joseba Langararena da.



Danborradetarako entseguak hasi dira

San Martin jaien atarian, haurrek zein nagusiek hasi dituzte dagoeneko danborradetarako entseguak. Astelehenean, hilaren 1ean, hasi zituzten, eta datorren astean jarraitu egingo dute, 8an, 9an, 10ean eta 11n, hain justu ere. Umeen entseguak 19:00etatik 20:00etara izango da eta nagusienak, berriz, 20:00etatik 21:00etara. Biak Seminarioko patioan izango dira, ohi bezala. Danborradei dagokienez, nagusien hilaren 15ean izango da eta umeena, berriz, hilaren 16an. /M.B.

Erreileno eta Tostoiaren Kofradiaren 4. kapitulua

MONIKA BELASTEGI

Erreileno eta Tostoiaren Kofradiak 4. kapitulua egingo du hilaren 14an. Ohorezko lau kofradiakide izendatuko dituzte: Jose Antonio Zabala, Urretxindorrek, Miguel Sagastume eta Gure Ametsa elkarteak.

Jose Antonio Zabala zenaren kasuan, alkate izandako denboran gutxitu psikikoen alde egin zuen lana goraiatu nahi du kofradiak; Urretxindorrek musika taldeari dagokionez, euskarazko kantu arrakastatsu eta ezagunekin Bergararen izena Euskal Herrian zabaltzeko izana azpimarratu dute kofradiako kideek; Miguel Sagastume soinu jotzai-

learen kasuan, pertsonaia herrikoia eta ezaguna izateagatik izendatuko dute ohorezko kofradiakide. Kofradiako kideen esanetan, mendizale amorratua izateaz gain, gozogilea ere izan da hainbat urtean, eta ondo baino hobeto ezagutzen ditu tostoiaren eta erreilenoaren sekretuak. Azkenik, Gure Ametsa elkartearen kasuan, kultura eta ekitaldi gastronomikoak antolatzen daukan esperientzia azpimarratu du kofradiak. Aurten 30 urte egingo ditu San Antonioko elkarteak, eta duela lau urte kofradia sortu zenetik kofradiaren egoitza izan da.

Irailaren 14ko ekitaldien barruan bazkaria izango da Lasa jatetxean. Izena emateak 45 euro balio du.



Hilaren 14an, San Martin jaien barruan, 4. kapitulua egingo du kofradiak.

Orfeoia Donostiara eta Iruñera eramango du 'Oliver!'

MONIKA BELASTEGI

Iaz Bilboko Euskalduna jauregian izandako arrakastaren ostean, beste bi hiriburutan egingo du Bergarako Orfeoia *Oliver!* musikala: batetik, Donostian, Kursaal-en; eta bestetik, Iruñean, Baluarte aretoan.

David Azurtza orfeoiko zuzendariak esan duenez, iazko Gabonetan Bilbon egindako emanaldietatik eratorri dira ema-

naldi berriok: "Kursaal-eko arduradunak Bilboko emanaldia ikusi zuen eta gustatu egin zitzaion. Hori horrela, *Oliver!* Donostian eta Iruñean eskaintzeko aukera sortu zaigu".

Iruñean abenduaren 27an izango da emanaldia; Donostian, berriz, urtarrilaren 2an eta 3an egingo dute. Emanaldiotan Bergarako Orfeoiko kideek eta Musika Eskolako hainbatek hartuko dute parte, besteak beste.

KULTURAPILULAK

Moises Azpiazu dantza taldeak neska-mutikoendako dantza ikastaroa antolatu du

Ikasturte hasiberriarekin bat eginez, Moises Azpiazu dantza taldeak dantza suelto ikastaro berriak antolatu ditu. Ikastaroak 5 urtetik hasi eta 15 urtera arteko neska-mutikoei zuzenduta daude. Eskola orduak astean birritan izango dira -astelehenean, martitzenetan eta eguaztenetan aukeratzeko-, 17:00etatik 18:00etara. Horrez gain, 15 urtetik gorakoendako eskolak ere emango dituzte, zapatuetan, 11:00etatik 12:00etara. Ikastaroen prezioa 20 eurokoa da, hileko. Izenematea eta informazio zabalagoa 676 52 03 60 telefonora deituta (Irantzu). Eskolak hilaren 17an hasiko dira.

E, TXO!

GUREGAIK/ IKASTURTE BERRIA

Eskolako materiala erosteko garaia da

AINZANE IRIZAR

Eskolara itzultzeko garaia iritsi da, eta horrekin batera, baita eskolako materiala erosteko garaia ere. EAEko kontsumitzaileen elkarteek jakinarazi dutenez, %6,7 igo dira ikasturte hasierako gastuak.

Euskal Autonomia Erkidegoko kontsumitzaileen elkarteek jakinarazi berri dutenez, ikasturte hasierarekin, batez beste, 400 bat euro gastatuko dituzte gurasoek seme-alaba bakoitzeko. Testu liburuak, arropa, kirolestarako materiala eta bestelako osagarriak erosi beharko dituzte. Horiei guztiei, garraioaren eta jantokiaren gastuak gehitzen

badizkiegu, 1.300 bat eurora iristen da kopuru hori.

Datu horiek emateaz gain, hainbat aldarrikapen ere egin dituzte kontsumitzaileen elkarteek, urteroko moduan. Besteak beste, ikasturtean zehar ikasleek erabili behar dituzten liburuak doanekoak izatea eskatu dute, kontuan hartuta eskolaratzea derrigorrezkoa dela.

BERRERABILPENAREN KULTURA

Eskolako materialak eragiten dituen gastuekin lotuta, material hori berrerabiltzearen alde azaldu dira; hau da, liburuak ondo zaindu eta beste ikasle batzuek berriz erabili ahal izatearen alde. Denon artean bultzatu beharko dugu kultura hori.



Liburuetan gatatzen dugu diru kopuru handiena.

ARTIBOIA

LOTSABARIK/ Ibai Romero

“Gazteondako ekintzak falta dira herrian”

AINZANE IRIZAR

Estatistiketatik kanpo geratzen den gaztea da Ibai: telebistatik ez du ikusten, saio bat besterik ez; ikasketei dagokienez, ez du bere adineko mutil gehienen bidea hartu: Zientzia Politikoko ikasketak egingo ditu.

- Alkate izango bazina, zer aldatuko zenuke?
- Gazteondako gauza gehiago jarriko nituzke, aisialdirako ekintza gehiago.
- Zure karpetan zer irudi edo pegatina daukazu?
- Ezertxo ere ez daukat.
- Telebistako saio gorrotagarriena? Eta gustukoena?

Gran Hermano eta horrelakoak ez zaizkit batere gustatzen. Telebistan ikusten dudana saio bakarra *The Simpsons* da, asko gustatzen zait.

• **Pertsonaia higuigarriena? Eta gustukoena?**

PPko guztiak, esaterako, higuigarriak iruditzen zaizkit. Higuigarri asko eta gustuko gutxi daudela esango nuke.

• **Zerk amorratzen zaitu?**

Jende faltsuak.

• **Zer estimatzen duzu besteengan?**

Jatorra izatea, beti egiarekin ibiltzea, gauzak aurpegira esatea eta gezur barik ibiltzea.

• **Zeri ematen diozu lehentasuna bizitzan?**

Ondo pasatzeari eta lagunekin egoteari.

• **Zure bertute bat? Eta akats bat?**

Irekia naiz, erraz egiten ditut harremanak. Akatsa, berriz, txarrerera txarrena naizela.

• **Zelan ligatzen duzue gazteok?**

Ez dakit, ni aspalditik nago ligatuta.

• **Zure bikotekide ideala zela-koa izango litzateke?**


Orain daukadana ideala da: jatorra, irekia eta pertsóna ona.

• **Nora eta norekin egingo zenuke bidaia bat?**

Neskalagunarekin, edonora.


• **Etorkizunerako amets bat?**

Lan on bat edukitzea eta ondo bizi ahal izatea.



ADINA: 19 urte • **IKASKETAK:** Zientzia Politikokoak • **ZALETASUNAK:** Musika entzutea eta lagunekin irtetea • **LIBURU BAT:** 'Diario de un skin', Antonio Salasena • **FILM BAT:** 'Alguien voló sobre el nido del cuco' • **MUSIKA TALDEA:** Asko daude • **KIROL TALDEA:** Athletic

TIRABIRAKA/ Joseba Lasa



ZAHARREN ETXETIK

Kultur Hamabostaldiari begira, Kartel Lehiaketa eta Argazki Lehiaketa deitu ditu San Joxepe erretiratuen elkarteak

EDU MENDIBIL

San Joxepe erretiratuen elkarteak Kartel Lehiaketa eta Argazki Lehiaketa deitu ditu urrian ospatuko den Kultur Hamabostaldiari begira. *Edadetuak, gizarte-aldaketaren bultzatzaile* izan da erretiratuek aurtengo ediziorako aukeratu duten leloa.

Kultur Hamabostaldiaren VII. ekitaldia ospatuko da urrian, eta aurreko urteotan moduan, hitzaldiak, kultura emanaldiak, mahai-inguruak, irteerak, herri bazkaria eta beste hainbat ekitaldi antolatuko dituzte. Esan bezala, *Edadetuak, gizarte-aldaketaren bultzatzaile* izango da leloa eta ekitaldien ardatza. Edadetuen kolektiboak gizartearen presentzia aktiboa izatea aldarrikatu nahi dute San Joxepekoek.

Kartel Lehiaketarako lanak jasotzeko epea irailaren 10era arte egongo da zabalik. Epaimahaiak saritutako lanak 600 euroko saria jasoko du. Lanek ondoko testua eraman beharko dute: *Antzuola eta Bergarako jubilatuen VII. Kultur Hamabostaldia 2003ko urria*; eta behean, *Los mayores, agentes de cambio social/Edadetuak, gizarte-aldaketaren bultzatzaile*. Lehiaketara aurkezten diren lanekin erakusketak egingo da, urriaren 3tik 10era, erretiratuen egoitzan.

ARGAZKI LEHIAKETA

Argazki Lehiaketara koloreetako zein zuri-beltzeko lanak aurkeztu ahal izango dira, irailaren 22ra arte. Lehen saria 120 eurokoa da, bigarrena 90 eurokoa eta leloa ondoen adierazten duen lanarendako 130 euro izango dira. Argibideak 943 76 30 09 telefono zenbakian jaso daitezke.




Argazkian, joan zen urteko Kultur Hamabostaldiari amaiera eman zion bazkariko irudi bat.

Informatika ikastaroak udazkenetik aurrera San Joxepe elkartearen

E.M.

Ikasturte berriarekin batera, San Joxepe erretiratuen elkarteak informatika ikastaroak antolatzeari eutsiko dio. Irailaren 22tik aurrera nagusiei zuzendutako hainbat ikastaro izango dira San Joxepeko Informatika Gelan. Besteak beste, informatika hasiera ikastaroa, Internet, eta Excel, PowerPoint eta Word programei buruzko ikastaroak antolatu dituzte. Excel programa ezagutzeko ikastaroa irailaren 22tik abenduaren 15era bitartean emango da, astelehenetan, 15:00etatik 19:00etara. Gainerako ikastaroak urrian hasiko dira: informatika hasiera (urriaren 6tik azaroaren 12ra, astelehen eta eguaztenetan, 11:00etatik 13:00etara); Internet (urriaren 7tik azaroaren 13ra, martitzen eta eguaztenetan, 17:00etatik 19:00etara); PowerPoint eta argazkien trata-



San Joxepeko informatika ikastaroek harrera bikaina izan dute azken urteotan.

menduari buruzkoa urriaren 9tik azaroaren 20ra (eguenetan, 11:00etatik 13:00etara); eta Word ikastaroa urriaren 7tik azaroaren

18ra (martitzenetan, 11:00etatik 13:00etara).

Izenematea irailaren 30era arte egongo da zabalik.



Irunera eta Hondarribiara irteera

San Joxepe elkarteak eguaztenetan, hilaren 10ean, Hondarribiara eta Irunera joateko irteera antolatu du. Irteera 09:15ean egingo dute autobus geltokitik, eta Irun eta Hondarribia bisitatzeaz gain, Guadalupe inguruan ibilalditxoa egingo dute. Hondarribia jaietan murgilduta dagoenez, hango giroaz gozatzeko aukera paregabea izango dute herriko erretiratuek. Bazkaria, berriz, Irunen egingo dute. Izenemateak 17 euro balio du. Argibideak 943 76 30 09 telefono zenbakian.

Garbil

INPRIMATEGIA


- Inprimakiak orokorrean
- Ezkontzarako gonbidapenak
- Enkoadernazioak
- Kautxuzko zigiluak

PAPER-DENDA

- Bulegoko materiala lantokira eramaten dugu
- Irailean eskolako materialean eskaintza berezia

Artzamendi 4 Tel.: 943 76 23 28 faxa: 943 76 54 87 Bergara

GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Ze kaletan daude leiho horiek?

ESKULTORE BERGARARRAK GAUR


Joseba Azkarate

EDU MENDIBIL

Mutikotatik labanarekin eta egurrarekin jolas egiteko ohitura izan duela diosku Josebak. Erretiratu zenean, etxeko ganbaran tailertxo egokitu zuen, eta han ematen ditu orduak: "Egurra lantzea izugarri gustatzen zait. Altzarien taila edo taila geometrikoa deritzona egiten dut: kutzak, botileroak, makilak, erloju bat ere egin berri dut...". Inoiz eskultura landu izan badu ere, tailagiletzat dauka bere burua: "Eguraren usaina eta ukimena gogoko ditut, eta zailtasunaren barruan, erraz samar lantzen da egurra. Gainera, nahiko epe laburrean emaitza begi bistan izateko aukera dago, eta hori gauza handia da".

Betiere kalitate handiko egurra erabiltzen duela esaten du: "Egur ona materia preziatua da niretako. Intxaurren beltza, haritza, gaztainondoa, gereziendoa erabiltzen ditut gehienetan. Basaka eta sabina ere egur ederrak dira. Bestalde, erremintak onak eta zorrotzak izatea ezinbestekoa da. Egurra tailatzea nire zaletasun handiena da, eta, egun euritsuetan batez ere, gustura jarduten dut nire tailertxoan".

"Egur ona materia preziatua da niretako. Egurra tailatzen asko gozatzen dut"



E.M.

GALDEDEBALDE

1. Zein urtetan jarri zen abian Bergarako HHI-EPA ikastetxea?
A/ 1985.
B/ 1982.
C/ 1987.
2. Gabonetan, non eskainiko du Bergarako Orfeoia *Oliver!*?
A/ Gasteizen eta Bilbon.
B/ Donostian eta Iruñean.
C/ Gasteizen eta Donostian.
3. Nor da Bergara KEko futbol talde nagusiko prestatzaile fisikoa?
A/ Raul Leiba.
B/ Larraitz Madariaga.
C/ Eñaut Unamuno.



AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

JESUSA MUJIKArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Jesusa!
Galderen erantzunak: Bonofotoa: Bidekurutzeta / Galde debalde: 1-C, 2-C, 3-A.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Coca-Cola

Bi litroko bi botila.

2,29 €

381 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12



UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE

MUJIKA FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaiozu ezusteko ederra! **Doan!**



BERGARA
Sherezade Moreno
Uztailaren 23an, 20 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak eta Aitor.



BERGARA
Itsaso Galvano
Irailaren 5ean, 6urte.
Urte askotarako!
Andoni eta etxeokak.



BERGARA
Aitor Agirrezabal
Uztailaren 30an, 4urte.
Urte askotarako!
Jone, Garazi eta gurasok.



BERGARA
Olaia Unamuno
Abuztuaren 22an,
urtebete. Zorionak!
Etxeokak.



BERGARA
Maitane Atxurra
Abuztuaren 23an, 5urte.
Zorionak! Etxeokak eta
Mikel lehengusua.



BERGARA
Joanes Plazaola
Abuztuaren 18an, 7urte.
Urte askotarako!
Etxeokak, bereziki Garazi.



BERGARA
Unai Barragan
Irailaren 3an, 5urte.
Zorionak! Familiakoak,
Olatz eta Oier.



BERGARA
Leire Agirre
Irailaren 8an, 6urte.
Urte askotarako!
Familiakoak eta Saioa.



BERGARA
Maider Uribe
Irailaren 5an, 8urte.
Urte askotarako!
Amama eta etxeokak.



BERGARA
Arantxa Uribe
Irailaren 7an, 13urte.
Urte askotarako!
Amama eta etxeokak.



BERGARA
Biken Larrañaga
Irailaren 4an, 5urte.
Urte askotarako!
Etxeokak eta tia Maritxu.



BERGARA
Mikel Vicinay
Irailaren 9an, 9urte.
Urte askotarako!
Aritz eta Mari Jose.



BERGARA
Ziortza Ibaibarriaga
Irailaren 7an, urtebete.
Zorionak! Etxeokak,
bereziki iker eta Josu.



BERGARA
Ane Azkarate
Irailaren 4an, 2 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak eta Maddi.



BERGARA
Ainhoa Osa
Irailaren 3an, 6 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.

Adi!


Argazkiak emateko lekuak:
Bergara: Berrigara, Irizar jauregia,
Barrenkalea 33
Antzuola: Udal Liburutegia,
astelehenetan 17:00etatik
19:00etara
Elgeta: Erosle-Baltxongua

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.

Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAREN agertu ondoren.
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.



SHOTOKAN KARATE-DO



• Karatea ikasi nahi duten guztiei gogoratzen diegu, denboraldi honetako klaseak hil honen 8an, astelehena, hasiko direla, ondorengo orduetan:

Umeak: 1. txanda, 17:30etik 18:30era

2. txanda, 18:30etik 19:30era

Nagusiak: 19:30etik 20:30era

• Ikastaroak **Joxean Iñarra** irakasleak emango ditu, titulu hauen jabea:

Euskadiko selekzioko prestatzaile fisikoa

Gipuzkoako selekzioaren hautatzailea

Soin hezkuntzako lizentziatua (INEF)

Karateko gerriko beltza 2. Dan-a

Ninjitsu gerriko beltza 2. Dan-a

Karate entrenatzailea


Ninjitsu entrenatzailea

Karate-epailea

Eta, gainera, Karateari buruzko material didaktikoa gertatzeko Debagoieneko Mankomunitatearen beka lortua duena.

Harremanetarako deitu 615 79 90 78 telefonora edo zatoz Ipintza Institutuko DBH eraikuntzako gimnasia entrenamendu orduetan.

Shotokan txapeldunen eskola!



Ariznoa gimnasia erritmiko taldea



Irailaren 17an gimnasia erritmikoko denboraldia hasiko da. Kirol polit honetan interesatuta dauden 6 urtetik gorako neskek, dei dezatela telefono honetara informazioa jasotzeko: 943 76 56 75 (Jabi).

Klaseak **BERGARAN**: martitzen, eguen eta egubakoitzetan, 18:00etan.

Boni Laskurain pasealekuko Aranzadi ikastolako gimnasioan.

Klaseak **ANTZUOLAN**: martitzen, eguazten eta eguenetan, 18:00etan.

GIMNASIA



Aupa neskek, anima zaitetze! Zuen zain gaude!

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko irailaren 5a / 168. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Buztinzuri hiru bat hilabetez egongo da itxita, inguru hartako urbanizazio lanak direla eta

AINTZANE IRIZAR

Abuztuaren 25ean itxi zuten Buztinzuri kalea, urbanizazio lanekin hasteko. Udaleko arduradunen esanetan, gutxienez hiru hilabetez egongo da zirkulazioari moztuta. Besteak beste, lurzoru berria jarri eta Ondarrerako zubia egingo dute hilabete hauetan.

Eskola parean hasi eta Talleres Antzuola pareraino dago itxita Buztinzuri kalea. Udaleko arduradunek esan digutenez, gutxienez hiru hilabetez egongo da itxita tarte hura.

Buztinzuri kalean egiten diharduten etxebizitzak aurrera doaz, eta orain, urbanizazio lanak egiten hasi dira; horregatik, hain zuzen ere, itxi dute kalea.

Alde batetik, lurzoru berria jarriko dute kale hartan eta eskolatik Sagastirako bidean; bestalde, egunkariaren saltokiaren aurreko aldean parke bat eta Ondarrera igarotzeko oinezkoendako zubia egingo dituzte.

Azkenik, Txorikua etxea eraitsi egingo dute. Etxe hura botata, autoendako errepidea egingo dute, Sagasti eta Kalegoi lotzeko.



Zirkulazioan aldaketa ugari eragin ditu Buztinzuri kalea itxita egoteak.

Lan horiek guztiak amaitzen dituztenean, herri barruko zirkulazioa zeharo aldatuko dute. Ibarrondoko bidegurutzetik plazarainoko bidea noranzko baka-

rrekoa izango da, eta bi lotune izango ditu Sagasti kalearekin: eskola ondoan bata eta Ibarrondoko bidegurutze parean bestea, Txorikua etxea dagoen tokian.

LURZORU MOTAK IKUSGAI DAUDE

Udalak oraindik ez du erabaki datozen hilabeteotan Buztinzur in zelako lurzorua jarriko duen. Izan ere, erabakia hartu aurretik,

herriarren iritzia jakin nahi du; horregatik, aukeran dauden lurzoru motak ikusgai jarri ditu oraingo astean udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Bulegoko ordutegian egongo da zabalik erakusketa, datozen bi asteotan. Udalaren asmoa da erabakia irailean bertan hartzea.

Irisgarritasun arauet jarraituz, egingo duten lurzoru berriak ez da oztopo arkitektonikorik egongo: errepidea eta espaloi maila berean egongo dira.

Lehendabiziko fasean, Buztinzur in, itxita dagoen zatian, eta eskola ondotik Sagastira doan bidean jarriko dute lurzoru berria; bigarren fasean, berriz, plazatik eskolarainoko zatian. Udalaren asmoa da herriko alde zahar osoan berritzea lurzorua.

BEASAIN-DURANGO PROIEKTUA

Lurzoru motekin batera, beste erakusketa bat ere jarri dute udaletxean: Beasain-Durango autobiarena, hain zuzen ere. Bergararik Zumarragarainoko tartearen proiektua eta maketak jarri dituzte ikusgai. Kontuan hartu behar da, gainera, irailean bukatzen dela proiektu horri alegazioak aurkezteko epea.



Istripu larria saihebidetan

Aurreko asteko zapatu arratsaldean istripu larria gertatu zen Antzuolako saihebidetan, Estalarako zubiaren azpian, hain zuzen ere. Arratsaldeko 17:30 aldera gertatu zen istripua, eta hiru autok jo zuten elkar. Bi lagun hil ziren istripuan, 12 eta 17 urteko bi gazte, hain zuzen, eta beste zazpi lagun zauritu ziren, horietako bi larri. Guztiak kanpokoak ziren.

Istripuaren ondorioz, ertzainek itxi egin zuten errepidea, eta auto ilarak sortu ziren. /A.I.

LABUR

Udalbatzak atzera bota zuen Gertu Gaeren mozioa

Gertu Gae plataformak aurkeztutako mozioa aztertu zuten uztaileko osoko bilkuran. Zera eskatzen zioten udalbatzari: "Herriak emandako ordezkari eta eskubideak onartzea eta hori gauzatzeko behar diren baldintzak eta baliabideak erabiltzea". Mozio hura atzera botatzea erabaki zuten, aho batez.

Bestalde, osoko bilkuren ordua aldatzea erabaki zuten: hemendik aurrera, 08:00etan egingo dituzte bilkurak, hileko azkeneko egubakoitzetan.

ELKARRIZKETA

OIHAN GEZALAGA/GRAFITI EGILEA

"Zaletasun honek arrisku puntu bat badauka, baina hori ere oso polita da"

Gailur tabernan grafitia egin duenetik, jende askok jakin du grafiti egilea dela Oihan. Orduetik hona, gainera, eskaintza ugari jaso ditu. 17 urte ditu Oihanek, eta Mekanika ikasketak egingo ditu oraingo ikasturtean.

Aita pintorea eta semea, herriz, grafiti egilea...

Hala da, bai, baina aita pintorea izateak ez du inolako eraginik izan. Margoak lortzeko erraztasunak badituzte, eta merkeago, gainera, baina gainera, lan ez du eraginik izan.

Gailurren grafitia egin duzunetik, herri osoak ikusi ahal izan du zure lana. Hori pozgarria izango da, ezta?

Bai, pozgarria da, eta gainera, lana ere ematen du; orduetik hona era horretako lanak egiteko eskaintza mordoa jaso dut. Eskaintza gehienak etxeetako logela eta egongeletan grafitiak egiteko izan dira, eta beste bat lokal bat margotzeko.

Lanak eskaintzeaz gain, jendeak zer komentatzen dizu?


Jendeari gustatzen zaizkio grafitiak, lan orijinala egiten dudala esaten didate.

Nondik sortu zaizu grafitieki-ko zaletasuna?

Orain dela urte eta erdi inguru hasi nintzen. Grafitiak ikusten nituenean, asko gustatzen zitzaizkidan, baina iruditzen zitzaidan nik ezin izango nituela inoiz egin. Egun baten, baina, hastea erabaki nuen. Neure kontura hasi nintzen ikasten; aldizkarietatik ideiak hartu, lehenengo paperean marraztu... Politikopoliki hobetzen joaten da.

Zaletasun hau praktikan jartzea ez da batere erraza, ezta?

Arrisku puntu bat badauka, baina horrek badauka abantaila bat ere: arriskuak adrenalina igorazten du, eta hori oso polita da.



ARGAZKILARIA XXXXXXXXX

"Neure kontura hasi nintzen grafitiak egiten, aldizkarietatik ideiak hartuta"

Nik pare bat aldiz izan dut arazotxoren bat ertzainekin, baina garrantzi handi barikoa.

Zaletasun honen beste alde txar bat da pagaren zati handi bat materiala erosten gastatu behar dela, baina gustatuz gero, gastatu egin behar.

"Pagaren zati handi bat grafitiak egiteko materiala erosten gastatu behar izaten dut"

Antzuolan ezagutzen duzu grafitiak egiten dituen beste lagun bat?

Ez, uste dut Antzuolan bakarra naizela; neu bakarrik ibiltzen naiz hemen, baina Bergaran badituzte grafitiak egiten dituzten lagunak.

KIROLA

Bi futbol talde berri osatu dituzte herrian

AINTZANE IRIZAR

Bi futbol talde gehiago izango ditugu herrian denboraldi berrian; erregional eta gazte mailako taldeez gain, nesken taldea eta kadeteena osatu ditu AKEk.

Oraingo astean hasi dituzte entrenamendu saioak taldeok, eta iraileko hirugarren hastean ekingo diote denboraldiari. Erregional mailako taldeari dagokionez, entrenatzaile berriak izango ditu: Julen Iparragirre eta Mikel Larrañaga, hain zuzen ere.

Gazte mailako taldea, berriz, Andres Arbuluk eta Pablo Olal-

dek eta Gaizka Asensiok entrenatuko dute, iaz bezala.

Neskek Iratxe Azkargorta izango dute entrenatzaile. 12 eta 16 urte bitarteko neskek osatzen dute taldea, eta Futbol 8 deritzon txapelketan hartuko dute parte.

Kadete mailako taldea, azkenik, Mikel Larrañagak entrenatuko du.

FERNANDEZ, PRESIDENTE BERRIA

Uztailean egin zuen urteko batzarrak Antzuola Kirol Elkarteak. Besteak beste, presidente berria aukeratu zuten hantxe: Jose Angel Fernández, hain zuzen ere.



12 eta 16 urte bitarteko nesken futbol taldea osatu dute.

A.I.

LABUR

Finalista Eguna ospatuko du Arrola mendi elkarteak domekan, Trekutzen

Etzi, domeka, ospatuko dute Finalista Eguna. 09:00etan plazatik irtengo dira, eta ibilaldi bat egin ondoren, Trekutzera iritsiko dira. Hilaren 13an eta 14an, berriz, kanpaldia egingo dute Valderejon. Martitzen arratsaldean eman dezakezue izena Arrolaren egoitzan.

KZGunea zabaldu dute, eta hainbat ikastaro hasiko dituzte irailean bertan

Dagoeneko ohiko ordutegiari heldu dio irailean KZGuneak: astelehenetik egubakoitzera egongo da zabalik, 16:00etatik 20:00etara. Hil honetan, gainera, Interneten gaineko ikastaroak hasiko dituzte; izena emateko, 943 78 70 86 telefono zenbakira dei dezakezue.

Tomas Gezalaga

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

**Zoruen kutxilatuta
eta
barnizaketa**

Kalegoi 21
Tf. eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

ANTZUOLA

Apainketak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

GAILUR

taberna eta
gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32

Tomas Gezalaga

**Apainketarako eta
industriarako pinturak
Paper margotzak
Moketak eta tapizatuak**

Kalegoi 21
Tf. eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2003ko irailaren 5a / 152. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegi • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Semaforoak eta irlatxoak ipiniko dituzte ibilgailuen abiadura moteltzeko

IRATI AGIRREAZALDEGI

Autoak herri barrutik abiadura handian pasatzen direla-eta, zirkulazioa moteltzeko hainbat semaforo ipintzea erabaki du Udalak. Aste honetan bertan hasi dituzte obrak eta, beranduenez, hilabete amaierarako lanak bukatuta izango direla uste dute.

Joan den asteartean hasi zituzten Sice enpresako langileek herriko kaleetan semaforoak ipintzeko lanak. Obrak abuztuaren 18an hastekoak baziren ere, atzeratu egin dira, eta arduradunen esanetan, 15 eguneko epean amaituta izango dira. Halá ere, baliteke hilabete amaierara arte luzatzea lanok.

Semaforoak Salvador kalearen hasieran eta bukaeran jarriko dituzte. Honela, autoak noranzko batera edo bestera joango dira, txandaka. Beste bi semaforo egongo dira Artekaleren sarreran eta beheko partean, Elorriotik edo Eibar aldetik datorren zirkulazioa erregulatzeko. Tunelaren alde banatan ere egongo dira, baita Bergarako bidetik Elgetarako sarreran ere.



IBAN ARANTZABAL

Eguaztenenean hasi ziren lanean, Salvador kalearen sarreran, semaforoak jartzeko obretarako makinak.

HELBURUA

Udala, autoak herri barruan abiadura handian ibiltzen direla ikusita, zirkulazioa moteltzeko moduak aztertzen hasi zen. Foru

Aldundian zebra-bide altxatuak egiteko baimena eskatu bazuten ere, ezezkoa jaso eta haien orde zemaforoak ipintzeko erabakia hartu zuten.

Semafoeroez gain, autoen abiadura moteltzeko oinezkoen babesgune edo irlatxoak eta espaloiak egingo dituzte. Irlatxoak Larrabileko bidegurutzetan, ospitale

zaharraren parean, eliza ostean eta transformadore inguruan ipiniko dituzte. Bergarako bidean ere egitekoak dira, eta kokapena Torrealdeko eraikin berrien arabera izango da. Espaloiak, berriz, Ostatu parean, Bergarako bidean eta tunelean.

EZADOSTASUNAK

Proiektua abian da, baina Udalean askotariko iritziak dituzte.

Aralarrek zera dio: "Kalkulakoa izan daiteke horrenbeste semaforo jartzea. Indarra egin beharko luke Udalak lastertasuna murrizteko zintak jartzeko. Efektiboena dira, eta, lege zorrotzen faltan, zirrikituren bat aurkitu beharko da, Elgeta kasu berezia dela azalduz. Oinezkoen arazo konpontzeko beste batzuk sortu beharrik ez dago".


EAJ-EAk, berriz, zera dio: "Adituek aztertutako proiektua da, eta onartuta dago. Guk ere baditugu zalantzak semafooren funtzionamenduaren eta tunel barruko espaloiaren gainean, baina abian jarri arte ezin da jakin zer gertatuko den. Proiektu zaila da, baina oinezkoen segurtasuna bermatu beharra dago, horregatik eman dugu baietza".

JENTREBISTAK/ Semaforoak trafikoaren onerako ala kalterako izango dira?



TERE MANTECÓN
61 urte

Semafoeroek autoen abiadura zertxobait txikituko dutela uste dut, baina horretarako gidariek errespetatu egin beharko dituzte.



MANU SARASUA
59 urte

Kalterako. Tapoi haundi bat sortuko dabela uste dot. Eta hori baiño arinago bariantia egin eta Bergarako bidia konponduko balebe, hobe litzake.




JORGE GARCÍA
36 urte

Onerako. Ordu batzutan baleike kolapsua egotia, baiña Salvador kalia askotan pasau eziñian egoten gara, eta semafoeruak soluziua izan leikez.



MARIA ANGELES MUÑOZ
55 urte

Onerako izango direla pentsatzen dut. Orain arte, tunelean, batez ere, zirkulazio arazo asko egon izan da; kamioiekin, esaterako.



CARLOS FERNÁNDEZ
56 urte

Herriaren onerako izan arren, alde txarrak dituzte: auto asko daudenean edo kamioiek maniobrartzean semaforoak ez dira nahikoa.

LABUR

Banatzailleak behar dira 'Goienkaria' Elgetan zabaltzeko

Goienkaria Elgetako postontzietan banatzeko hainbat arazo izan dira azkenaldian. Arazo horiek konpontzeko, banatzaille batek aldizkariak herriko atari guztietara eramatea izango litzateke irtenbidea. Beraz, ostiral arratsaldeetan, 16:00ak inguruan hasita, aleak banatzeko prest daudenean edo argibide gehiago jaso nahi dituztenek 943 71 23 91 telefonora deitu (Martel) beharko dute. Banatzailleak egindako lanaren ordainetan diru saria jasoko dute.

ELKARRIZKETA

PATXI USOBIAGA/ESKALATZAILEA

“Satisfazio pertsonala da niretzat eskalada, ezin dut hura gabe bizi”

Eibartar hau, mendian gora egitea gustuko duelako-edo, gaur egun Elgetan bizi da. Patxi Usobiaga eskalatzaile gaztea Munduko Txapelketan bigarren izan da aurtten. Entrenamenduen artean tartetxo bat eskaini digu.

Nola hasi zinen eskalatzen?

Txikitari, 10 urte nituela mendira sarritan joaten nintzen eta telebistaz eskaladako irudiak ikusita asko gustatzen zitzaidan. Lagun batzuekin hasi nintzen, gero Eibarko rokodromoan jardun nuen eta ordutik hona eskalatzen jarraitu dut.

Beti Eibarren ibili zara?

Han hasi arren poliki-poliki beste leku batzuetara irten nintzen: Atxartera, Araotzera, Etxaurira... 14 urtera arte aitarekin eskalatzen nuen, beraz, ezin nuen asteburu osoa niretzat hartu. Hala ere, gurasoek egun asko sakrifikatu dituzte ni eskalatzera joateko, eta eskertzekoa da.


Aitarekin ibiltzetik lagunekin eskalatzera pasatu zinen.

Bergarako eta Arrasateko jendearekin hasi nintzen eta gauza eta leku berriak ezagutu nituen entrenatzearen poderioz. Aurreapausoa izan zen niretzat.

Txapelketetan ere goiz hasi zinen, ezta?

14 urterekin. Gazte mailan Espainiako, Europako eta Munduko txapelketetan emaitza onak lortu ditut, baita nagusietan ere. Azkenaldian ere oso emaitza onak lortu dituzu.

Bai, emaitzak inoizko onenak izan dira: Munduko Txapelketan, Chamonix-en; Avilesen, Munduko Kopan, eta nazioarteko master batean bigarren postua eskuratu dut. Chamonixen ez nuen espero emaitza hura. Nire helburua finalera heltzea zen, eta hori lortuta lasai jokatu nuen. Orain, burua urrian eta azaroan jokatuko diren Munduko Kopako sei probatan jarria daukat.



ARTXIBOA

“Gurasoek egun asko sakrifikatu dituzte ni eskalatzera joan ahal izateko, eta hori eskertzekoa da”

Zer da zuretzat eskalada?

Ezin dut eskalatu gabe bizi, satisfazio pertsonala da niretzat. Eskalatzaileok ez ditugu futbolariak bezala milioiak irabazten. Baina geure gorputza eta burua ezagutzen ditugu gauzak mugara eramanez.

“Ez nuen espero Chamonix-en, Munduko Txapelketan, bigarren izatea”

Elgetan bizi zara orain. Bada eskalatzeko leku onik?

Rokodromo dagoela uste dut, baina ez dakit ondo dagoen. Harkaitzik, berriz, ez dago. Beraz, hemendik gertu, egokienak Araotz (Oñati) eta Atxarte (Durangaldea) dira.

LABUR

Arrate Elkororen ustezko hiltzailearendako 25 urteko kartzela zigorra eskatu du Donostiako Auzitegiko fiskaltzak

Donostiako Auzitegiko fiskaltzak 25 urteko kartzela zigorra eskatu du Arrate Elkororen estankoko jabearen ustezko hiltzailearentzat. Ministerio fiskalak Aitor M. M. akusatuari hiltzaile leporatu dio eta delitu horregatik 20 urteko zigorra ezarri. Bestalde, bortxa bidez egindako lapurreta ere egotzi dio, eta bost urteko zigorra eskatu. Fiskaltzak, 25 urteko zigorraz gain, akusatuari Elgetan sartzea debekatzeko eskatu du, bost urtez. Horrez gainera, akusatuak Arrate Elkororen alargunari eta alabei, hurrenez hurren, 150.000 eta 75.000 euroko kalte-ordaina emateko eskatu du.

Irailaren 15ean hasiko diren aerobik eta yoga ikastaroetan izena ematen dutenek ez dute lehen hilabeteko kuota ordainduko

Ikasturte hasierarekin batera, Udal Kirol Zerbitzuak hainbat kirol eskaintza jarri ditu abian. Irailaren 15ean aerobik eta yoga ikastaroak hasiko dira, eta erabiltzaileek ez dute iraileko kuota ordaindu beharko. Urrian, berriz, edadetuentzako gimnasia, sasoiaren egoteko gimnasia eta oinarrizko soin hezkuntza ikastaroen hasiera izango da. Bestalde, karate, tai-chi eta sasoiaren egoteko gimnasia (goizeko ordutegian) ere eskaini nahi dituzte. Horretarako, herritarrak interesik ba ote duten jakin nahi dute antolatzaileek. Ikastaroetan izena emateko udaletxera edo Bola-Toki tabernara jo beharko dute interesatuek.



Elizako ordularia gelditu egin da

Abuztuan jendeak oporrak hartu zituen, eta badirudi elizako erlojuak ere lana albo batera laga zuela. Bigarren astean gelditu, eta probak egin dituzten arren, oraindik ez dituzte orratzak berriz mugimenduan ipini. Erlojua oso zaharra da eta pieza batzuk hondatuta ditu. Arduradunek ez dakite noiz konponduko duten; horretarako bidea aztertzen dihardute./I.A.

JAR EZAZU HEMEN ZURE PUBLIZITATEA

Goibekokale



RECYDE, S.A.
Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel. zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es



ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949



ELGETA AUTOAK

Berraondokoa z/g ELGETA
T. 943 76 82 02 F. 943 76 82 98

ERRETRATU ZAHARRA

ELGETA

Ozkarbiko Finalista
Eguna Egoarbitzan

Ozkarbi Elkarteko Mendi Taldeak urtero ospatu ohi zuen Finalista Eguna Egoarbitzan.

Bertan, herriko mendizaleei hainbat sari banatzen zizkieten, hain zuzen ere, urtean zehar inguruko mendietara irteerak antolatuz egindako ahaleginaren trukean.

Argazkiko gazte koadrila horrek ere merezitako saria jasoko zuen, seguru aski, 1970. urteko Finalista Egunean. Egoarbitzako zelaian taldean ateratako erretratuan, behintzat, pozik ageri da zazpikotea.

Gaur egun, Ozkarbi Elkartek ez dauka bere baitan mendizale talderik.

Argazkian azaltzen direnak, ezkerretik eskumara:

Zutik, Joseba Elkoro, Jose Manuel Sarasua, Felix Sarasketa eta Maite Elkoro.

Makurtuta, berriz, Maria Angeles Elkoro, Pello Oianguren eta Maria Asun Agirre.

Urtea: 1970



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatorz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLA ALDATU DIRENGAUZAK

ELGETA

Pagatzako
industrialdea


Azken urte hauetan industria jarduera nabarmen hazi da Elgetan. Horrekim batera, baita industriaguneak ere.

Hazkunde horren erakusle garbia da Pagatzako gune industrialak izan duen aldaketa. Obrak egin eta pixkanaka handitzen ari da. Errepidearen alde banatan lantegiak ikus daitezke gaur egun, baita eraikin berri bat egiten ari den garabia ere.



≈ 1980

Lantegiak herri erdialdetik aldentzeko lehen pausoak emanez, herritik gertu industriaguneak eratzeko lehen pausoak eman ziren.



2003

Gaur egun, Pagatzako industrialdea errepidearen bi aldeetara zabaldu da, eta, lehenengo lantegiez gain, berriak eraikitzen dihardute.

Zumelaga
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

LAKET

gizon & emakume

Barrenkalea 35
BERGARA

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35


GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

Zer da hau?

Akaso lauburu bat?

Jolasa da!



Eraikin bat da!

Ez, lau margo dira!

San Martin Agirre herri eskola

Gure
LOGOTIPO BERRIA!

OHARRA: Ikasturtea Irailaren 8an hasiko da 3 urtetik gorakoentzat. 2 urtekoak Irailaren 11an hasiko dira.



SAN MARTIN - IPINTZA - M. ALTUNA
BERGARAKO IKASTETXE PUBLIKOAK

2003-2004 IKASTURTEKO EUSKARA IKASTAROAK

Eskaintza:

EUSKALDUNTZE eta ALFABETATZE maila guztiak.
EGA eta EGAtik gorakoa.
HIZHUNTZA ESKAHIZUNetarako prestakuntza.
Egokitutako taldeak:
Guraso, merkatari, enpresa, etab.
MULTIMEDIA gela.

Erritmoak:

Eskarrien araberako erritmoak. Galde ezazu!

Bulego ordutegia:

Goizez: 08:30-13:00 • Arratsaldez: 14:30-18:30.

Matrikulatzeko epea:

Irailaren 1etik 19ra.

16 urtetik gorakoentzat.

Behatze sistema eta diru laguntzak ditugu.

Garai honetan indarra behar duzu. Baina euskara beti. Horregatik zure behar profesionali, familiartekoiei, kulturali egokitzen den euskara eskaintzen dizugu eta gainera...

MATRIKULA DOAN ERE IZAN DEZAHEZU!



oporren ostean indarra beharko duzu... euskara beti!



BERGARAKO Udal Euskaltegia

www.udaleuskaltegiak.net

BERGARAKO Udal Euskaltegia-Zabalotegi 13 • 20570 BERGARA
Tel./Faxa: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net
berg.euskudal@eushalnet.net

Opel Meriva berria



Opel. Ideia berriak. Auto hobeak.

%100 Meriva | %100 malgua



%96 Meriva

Konturatu zara malgua izanda etekin handiagoa ateratzen diozula bizitzari? Izan ere, horrela askatasun handiagoa daukazu. Bost, lau, hiru edo bi eserlekuren artean aukeratu gura duzu? Eserleku guztiak etzangarriak izatea gura duzu? Horiek aurrerantz eta atzerantz eraman ahal izatea gura duzu? Baita aldeetarantz ere? FlexSpace sistemak milaka aukera eskaintzen dizkizu. Zuretako egin dugu. Opel Meriva berria da.

Giauto Bergara

Kontzesionario ofiziala:

Olabarrena auzoa z/g. Tel. 943 76 33 44/45/46/47. BERGARA

www.giauto.es